

# astigarraga

2008ko martxoan ■ Udal Informazio Aldizkaria ■ Revista de Información Municipal

## a u r k i b i d e a

AURKEZPENA ..... 2

ERGOBIA ..... 3

OBRAS Y SERVICIOS ..... 4-5

EUSKARA ..... 6

COMERCIO ..... 7

LABURRAK ..... 8-9

HERRITARRAK ..... 10

ELKARRIZKETA ..... 11

AGENDA ..... 12



Astigarragako Udala

## Etorkizuneko Astigarraga gauzatzen hasi da



Ergobia auzoko biziberritze proiektuak planoak alde batera utzi eta errealitatera jauzi egin du dagoeneko Lehen Fasearen amaierarekin eta Bigarrenaren iragarpenarekin. Bestalde, hobekuntza nabarmenak egingo dira Anuska inguruan eta Udalak sagardo eta merkataritza sektoreei bultzada emateko apustua egin du egitasmo ezberdinen bidetik. Gainera, berrikuntzaren aldeko apustua ere egingo du ONA txartelaren bidez.

La regeneración del barrio de Ergobia ha saltado ya desde los planos a la realidad con la culminación de la Primera Fase y el anuncio de la Segunda para septiembre. Por otro lado, se harán notables mejoras en la zona de Anuska y el consistorio ha apostado por dar un impulso al sector sidrero y al comercio del municipio gracias a distintas iniciativas y, además, apostará por la innovación con la tarjeta ONA.



## Gure etorkizuna eraikiz

Ergobia auzoa biziberritzeko lanen Lehen Fasearen amaiera, zalantzarik gabe, astigartarren artean gehien espero zen albisteetako bat izan da. Ingurunea oinezkoentzat egokitu da eta zuhaitzez hornitutako espazio berri eta eroso bat sortu da bizilagunek jasandako auto eta kamioien joan etorria ahaztaraziz. Irailan, auzoko jaiak igaro ostean, hurrengo faseari dagozkion obrei emango zaie hasiera. Hauei esker plaza zabal bat egokituko da eta bertan idi-probetako pista ipiniko da, gure historiaren sinbolo esanguratsu bat den heinean, bere tokia bueltatuz. Gainera, Foru Aldundiak berriki Plan Orokorra onartu du, etorkizuneko Astigarraga diseinatu ahal izateko aukera zabalduz.

Azken hilabeteetan hainbat egitasmo ipini dira martxan sagardo eta merkataritza sektoreari bultzada eman asmoz, hala nola, Udalak, Sagardun-go sagardogileek eta ostalariek sinatutako kolaborazio akordioa, edota hogeit bat ordezkariarekin berriki sortu den Merkataritza Elkarteari emandako babesa. Ezinbestekotzat jotzen dugu Udalak herriko ekonomia eta herritarren bizi kalitatea hobetzen laguntzen duten sektoreak babestea.

Modu berean, argi dugu herritarren alde ere lanean jarraitu behar dugula euren bizi kalitatea hobetu eta udal administrazioarekin duten harremana erraztu dadin. Horretarako herritarren partaidetza lortzeko hainbat ekimen ipini ditugu martxan eta berriki astigartarrei ONA txartela banatzeko erabakia hartu dugu. Txartel honi esker, etxetik mugitu gabe eta ordenagailu baten bidez, udal administrazioarekin lotutako haibat zerbitzu izango ditugu eskura.

## Construyendo nuestro mañana

La culminación de la Primera Fase de las obras de regeneración del barrio de Ergobia es, sin duda, una de las noticias más esperadas por los astigartarras. La peatonalización y urbanización de la zona han creado un nuevo y acogedor espacio que ya nos hace olvidar el constante trasiego de coches y camiones sufrido por sus vecinos. En septiembre, tras las fiestas del barrio, comenzarán las obras correspondientes a la siguiente fase que habilitará una amplia plaza en la que se situará la pista de arrastre, todo un símbolo de nuestra historia. También se ha aprobado recientemente por parte de la Diputación el Plan General, que permitirá el diseño de la nueva Astigarraga.

En los últimos meses, se han puesto en marcha varias iniciativas para fomentar el sector sidrero y comercial del municipio con la firma de un acuerdo de colaboración entre Ayuntamiento, sidreros de Sagardun y hosteleros, y el apoyo a la reciente creación de la nueva Asociación de Comerciantes con la participación de una veintena de representantes. Es imprescindible que desde el Ayuntamiento apoyemos los distintos sectores que ayudan a mejorar la economía y la calidad de vida de nuestros vecinos.

Del mismo modo, también debemos seguir trabajando a favor de los ciudadanos, para mejorar su calidad de vida y facilitar su relación con la administración local. Para ello, estamos habilitando vías de participación ciudadana y recientemente hemos acordado hacer entrega de la tarjeta ONA a los astigartarras para que puedan acceder a numerosos servicios municipales desde su ordenador sin tener que moverse de casa.



# Ergobia biziberritzeko lanen hurrengo pausoa irailean hasiko da

## Lehen Fasea, garaiera gehien izango duena, amaitzear dago

Ergobia auzoa biziberritzeko proiektua aurrera doa. Azken hilabeteetan zehar garatu diren lanen ostean, proiektuko Lehen Fasea amaitzear aurkitzen da une hauetan. Eremu hau garaiera gehieneko gunea izango da Ergobiako auzoan eta oinezkoentzat egokitu da, eserleku eta zuhaitzez hornitu delarik. Fase honetan aurki daitezkeen etxebizitzak, lehen errepidearen bi aldetara geratzen zirenak, dagoeneko garaiera altuago batez hornituta zeuden uholdeak ekidintzeko asmoz eta lehen faseko obra hauei esker, eremuko kota osoa igo da. Hurrengo pausoa, bigarren faseari dagozkion lanekin hastea izango litzateke. Hain zuzen ere, Udalak Ergobia Biziberritzeko Proiektuaren Bigarren Fasea bi zatitan banatzeko erabakia hartu zuen, alde batetik, zatietako batek kostu handia duelako. Eta bestetik, Bigarren Fasea garatuko den eremuetako batean etxebizitza berriak eraikitzeko asmoa dagoelako, eta eraikuntza horrek eragingo lukeen kamioien joan etorria kaltegarria izango litzatekelako Ergobia hiritartzeko obrak amaitzeko, beraz,

zati hori aurrerago garatzeko erabakia hartu zen.

**Ergobia auzoa itxuraldatzen hasi da dagoeneko. Bizilagunentzat aro berri bat irekiko da obra hauei esker.**

Lanik garestienak irailean hasiko dira. Hala, lehendabizi zatirik garestienari ekingo zaio, hau da, idi-probetako pista aurkitzen den eremuari, 600.000 euroko aurrekontuarekin. Udalak lan hauek egin ahal izateko izapideak egingo ditu baina argi utzi du lan hauek ez direla irailera arte hasiko, izan ere Ergobiako bizilagunek

horrela eskatuta, auzoko jaiak igaro ondoren hasiko dira. Lan hauen konplexutasunak egiten ditu hain garesti. Izan ere, lehen errepidea igarotzen zen eremu osoa altxa behar da eta instalazio guztiak aldatu behar dira; elektrikoak, saneamenduzkoak, telekomunikazioenak, argizatze publikoarenak,... Gainera, orain arte alderdi batera geratzen zen idi-probetako pista erdialderago ipiniko da obrei esker, oinezkoentzat egokituko den eremuko erdialdean gutxi gora-behera. Erabiliko diren materialak lehenengo fasean erabili direnen antzekoak izango dira eta eserlekuak eta 4 zuhaitz ere ipiniko dira.



Bigarren Faseko lehen zatiko lanak eremu honetan garatuko dira.



## Obra eta zerbitzuak

# Plan de Accesibilidad para la zona de Anuska

**El Consistorio ha visto necesario llevar a cabo ciertas obras en la zona conocida como ‘Anuska’ para mejorar su accesibilidad.**

Para ello ha elaborado un Plan de Accesibilidad para la zona y la Comisión de Obras y Servicios ha acordado recientemente dar prioridad a las fases 3, 4 y 5 que recoge dicho plan, es decir, las fases que afectan a las escaleras que unen los dos niveles de altura. Se sustituirán dos escaleras que resultaban molestas y peligrosas para los vecinos de la zona y, además, se habilitará una rampa para mejorar el acceso con carritos de niños o sillas de ruedas. Las nuevas escaleras estarán provistas de descansillos y barandillas para mejorar la seguridad de los peatones, ya que las actuales escaleras presentan un gran desnivel que ya ha provocado

alguna que otra caída. La Comisión de Obras y Servicios ha dado prioridad a estas acciones al entender que se trata de unas medidas “urgentes”. Según las previsiones estos trabajos tendrán una duración aproximada de 3 meses.

Una vez se completen estas actuaciones, el Consistorio retomará el resto de fases que recoge el Plan de Accesibilidad y que afectarán, entre otros, al parque infantil y al ensanchamiento de las aceras de la zona. No es la primera acción que se lleva a cabo en el municipio

para favorecer el tránsito de los

peatones e intentar eliminar las barreras que el transeúnte se pueda encontrar a su paso como se puede comprobar en la calle Tomás Alba, donde se rebajó la pendiente y se habilitó



*Vista de una de las escaleras que se va a sustituir.*



*Zona en la que se habilitará una rampa.*

una acera más ancha para los peatones provista de sendas barandillas a cada lado, o en Santiago Zeharra, donde se sustituyeron varias escaleras por unas nuevas más accesibles con descansillos y con menos pendiente, tal y como se va a hacer en Anuska.

## Obras y Servicios

### Aldaketak Galtzaur plazako aparkalekuan

Aparkaleku barruko zirkulazio norabidea aldatuko da eta espaloi gainean arkitzen diren edukiontziak, aparkalekura jaitsiko dira.

Galtzaur plazako aparkalekuak hainbat bizilagunen keaxak eragin ditu, batik bat, bi arrazoirengatik. Horietako bat aparkaleku barruko zirkulazio norabidea da. Orain arte indarrean egon diren seinaleak errespetatuz gero bizilagunek arrisku egoerak sortu zitezkeelako ohartarazi zuten, izan ere, plazan kokatuta dagoen etxebizitza bateko lur azpiko aparkalekutik irteten ziren kotxeek aparkaleku barruan zebiltzan kotxeekin aurrez aurre talka egiteko arriskua sortzen zelako. Inguru horretako bizilagunen eskaerei erantzunez, Udalak aparkaleku barruko zirkulazio norabidea aldatzeko erabakia hartu du. Horri esker, lur azpiko aparkalekutik irtengo diren autoak eta kanpoko aparkalekuan zirkulatzen ari diren

gidariek norabide berdina izango dute. Epe laburrean beraz, seinale berriak markatuko dira aparkalekuan bertako erabiltzaileen segurtasuna bermatu asmoz.

Espaloia libre geratuko da Esan bezala, Galtzaur plazako aparkalekuarekin lotuta beste aldaketa bat ere

egongo da laster. Aparkalekuaren albo batera aurkitzen diren edukiontziak espaloien gainean kokatuta zeudela eta, oinezkoek beste espaloiera igaro behar izaten zuten. Egoera hau konpontzeko, Udalak aparkaleku bat desagertarazi eta



Aparkaleku barruko norabidea laster aldatuko dute

edukiontziak aparkalekuan bertan kokatzeko erabakia hartu du, espaloia oinezkoentzako guztiz libre utziz. Galtzaur plazako aparkalekuan egingo diren aldaketa hauek luzera jota hilabete baten bueltan amaituta egongo direla aurreikusten du Udalak.

### Habr  un nuevo proyecto para Errekato

El primer proyecto presentado por el Consistorio para urbanizar Errekato fue rechazado por los vecinos

El barrio de Errekato se ver  modificado gracias a una nueva ordenaci n urban stica. El Ayuntamiento present  un proyecto de urbanizaci n para la zona, una zona en la que adem s, se derribar  una antigua edificaci n y se levantar  una nueva promoci n de viviendas. Dicha propuesta de ordenaci n fue rechazada por los vecinos del barrio, alegando, entre otras razones, que eliminaba algunas plazas de aparcamiento existentes en estos momentos. Ante esta negativa el Ayuntamiento ha abierto una puerta a la participaci n ciudadana para conocer de primera mano las ideas y sugerencias de los vecinos del barrio y para ello ha buzoneado un cuestionario en el que,

adem s de adjuntar la propuesta de ordenaci n hecha por el Ayuntamiento, se recogen 4 preguntas sobre c mo les gustar a que fuese la nueva ordenaci n; por ejemplo, si dan prioridad a las plazas de aparcamiento o a las zonas peatonas, qu  cambiar an de la propuesta del Ayuntamiento, si desean zonas verdes en zonas pr ximas o si estar an dispuestos a presentarse voluntarios para el grupo de trabajo. Para el Ayuntamiento resulta muy importante que haya personas interesadas en

participar en este grupo de trabajo, ya que podr an convertirse en interlocutores de los vecinos de la zona. En ese mismo cuestionario tambi n hay un apartado de ‘sugerencias’.



El anterior proyecto eliminaba algunas plazas de aparcamiento



## Euskara

# Tximela: “Guk euskararekin dugun konpromisoa epe luzerako da”

TXIMELA ENPRESA TALDEA, S.L.k duela hiru urte, enpresetako Euskara Planen ezaugarri eta laguntza publikoen berri izan zuen Astigarragako Udalak Buruntzaldeko beste Udalekin batera prestatutako egitasmoari esker, eta, enpresarentzako onuragarria zelakoan, Euskara Plana diseinatu eta ezartzeko erabakia hartu zuen. Astigarragako Udalarekin hitzamenara sinatu ondoren Udalaren laguntza jaso du eta baita Eusko Jaurlaritzarena. Hiru urte hauetan, langile eta bezero euskaldunen asetzeko maila igo eta kalitate handiagoko zerbitzua eskaintzeko hainbat urrats eman dituzte, beti ere, enpresaren egoera eta beharretara egokituta. Fernando Martinez bertako Administrazio Zuzendariarekin aritu gara solasean, euren esperientzia ezagutzeko eta etorkizunerako zein asmo dituzten ezagutzeko.



### -Noiz eta zergatik hasi zineten Euskara Planarekin?

Hiru urte daramatzagu plana aurrera eramaten. Nahiz eta enpresa barruan euskararen erabilera indartzeko ekimen puntualak eginak izan aurretik, kanpoko laguntza jasotzeko aukera eskaini zigutenean erabaki genuen plan serio bat prestatzea. Egiteko horretarako Astigarragako Udaleko teknikariek nahiz Buruntzaldeko Udaletako euskararen aldeko taldeak laguntza eta bultzada handia eman izan digute.

### -Plana egin aurretik zein zen euskararen egoera zuen enpresan? Noiz erabiltzen zen? Zertarako?

Gure langileriaren gehiengoa euskalduna zen. Langileen arteko ahozko komunikazioaren portzentaia handi bat euskaraz egiten zen. Idatzitako komunikazioan eta kanpora begira berriz, gutxiago.

### -Nola hartu dute langileek Euskara Plana?

Harrera oso positiboa izan da. Euskara Planaren bitartez, gure helburuetako bat, langileen parte-hartzea sustatzea izan da enpresarekin harremana duten gauzetan.

### -Zenbat denboraz luzatu da Euskara Plana Tximelan?

Hau planaren hirugarren urtea da. Gauzak ondo egin nahi ditugu eta poliki goaz, gure enpresako eguneroko lanek ez digutelako denbora libre asko uzten. Nire ustez euskararen sustapena urte askotan zehar luzatuko den lana izango da gure enpresan eta hasi besterik ez gara egin.

### -Zein izan da lanik gehien eskatu dizuen atala?

Gehienak ohituta geunden euskaraz hitz egitera baina ez ordea idatziz komunikatzeko. Arlo horretan hutsune asko ditugu gehienek eta prestakuntza luzea izango da. Lehen esan dudana bezala, gauza txikietatik hasi gara. Adibidez, artxibategien izenburuak euskaratu ditugu.

### -Euskararen erabilera sustatzeko lanetik kanpoko jarduerak egin dituzte?

Gure asmoen artean dago mendiko irteerak prestatzea, erabilera taldeko pertsonak eta mintzalagunak lanetik kanpo ere euskaraz jardun daitezten.

### -Maiz hitz teknikoek nahiko buruhauste eragiten dituzte. Zuen kasuan, nola moldatu zarete hitz horiek itzultzeko? Laguntza jaso duzue?

Astero EMUN kooperatibako teknikari bat gurea etortzen da planaren garapenean laguntzeko, eta askotan berak laguntzen digu itzulpenak egiten. Aurtengo helburuen artean guk gehien erabiltzen ditugun hitz teknikoekin hiztegi labur bat osatzea dago.

### -Zuen bezero eta hornitzaileek zer iritzi dute zuen Euskara Planaren inguruan?

Bai batzuk zein besteek maiz eskertzen digute euskaraz komunikatzeko aukera eskaintzea. Garbi daukagu Euskara Planak guretzat izan behar duela, euskararen alde eginiko aparteko ahalegin bat, eta horrek bere isla du gure bezeroei emandako zerbitzuaren kalitate-maila hobetzeko ere.

### -Behin Euskara Planaren atal bat

### amaituta, Tximelan euskararen erabilera eta euskararen presentzia handitu egin dela esango zenuke?

Lehen esan dudana bezala proiektu hau epe luzerako proiektu bat da. Hasi berriak gara baina aurrerapausoak nabarmentzen hasiak dira dagoeneko. Euskararen presentzia askoz ere handiagoa da orain duela zenbait urte baino, eta hala eta guztiz, lan asko geratzen zaigu egiteko oraindik. Kontutan izan behar da langileriaren zati handi bat ez dela euskalduna eta horretara ere moldatu egin behar dugu, etorkizunarako prestatuz.

### -Oro har, nola baloratuko zenuke Euskara Plana Tximelan txertatzeko esperientzia? Gomendagarria iruditzen zaizu?

Niretzat behintzat oso positiboa izaten ari da esperientzia. Esan dudana bezala langileen parte-hartzea indartzen da eta gainera enpresak kanpora begira duen irudia ere hobetu egiten da. Hortaz, guztiz gomendagarria dela deritzot.

### -Euskararekin hartutako konpromisoa epe luzerako konpromisoa izango da zuen kasuan. Etorkizunari begira, zein pauso emango dituzte?

Zalantzarik gabe gure konpromisoa epe luzerako da. Garbi dago gure hizkuntzak laguntza handia behar izango duela etorkizunean, eta beharrezkoa da lan munduan ere eragitea. Pausoak txikiak izango dira baina garrantzitsuena bidean ez gelditzea da. Kontuan izan behar dugu erronka handiegia jarri eta porrot egitea kaltegarria izango litzaketeela. Beraz, mantso bada ere aurrera egiten jarraituko dugu.

# Se ha constituido la Asociación de Comerciantes

Una de las pretensiones del actual equipo de Gobierno ha sido impulsar la creación de una Asociación de Comerciantes en el municipio, una herramienta de la que carecía el sector y que el Ayuntamiento optó por proponer a los propios comerciantes de Astigarraga. La respuesta ha sido muy positiva, ya que tras varias reuniones y contactos con los responsables de diferentes establecimientos éstos han decidido, con la ayuda y apoyo del Ayuntamiento y del Gabinete Técnico de Comercio del Gobierno Vasco, constituir formalmente la que será la Asociación de Comerciantes de Astigarraga, con una participación inicial de entre 15 y 20 socios. El acto de constitución se

celebró el pasado día 5 de marzo y sirvió para establecer las bases que regirán dicho órgano y nombrar a las personas responsables de la asociación.

La creación de esta nueva Asociación, que a potenciado la Comisión de Participación Ciudadana, Comercio y Cooperación al Desarrollo, servirá para impulsar el sector. Se convertirá en un importante interlocutor gracias al cual los comerciantes tendrán una representación unificada ante el Ayuntamiento. Podrá coordinar actos conjuntos para dinamizar el sector en el municipio. Además, la propia asociación cumplirá la labor de apoyo a sus miembros.

### Autogestión

El Ayuntamiento de Astigarraga ha

apostado por apoyar y ofrecer todas las herramientas a su alcance para facilitar el despegue de esta nueva asociación dado su interés. Además de la labor de orientación y de interlocución entre los miembros del sector, el Ayuntamiento también tiene aceptadas dos partidas; una de ellas, de 4.000 euros, para apoyar la creación de la asociación; y la segunda, de 2.400 euros, en concepto de inflables, megafonía, carpas, etc. para su uso en distintas actividades que organice. Teniendo claro que su apoyo y ayuda es esencial en estos momentos, el Ayuntamiento pretende que la asociación logre autogestionarse en un futuro cercano y organice su funcionamiento y sus propias acciones.

## Euskara merkataritzara 'E bitamina'rekin

Astigarragako Udalak herriko merkatarien artean euskararen presentzia eta erabilera sustatzeko 'Berrindartu zure enpresa E bitaminarekin' egitasmoa martxan jarri zuen iaz. AEKrekin elkarlanean garatu den egitasmo honi esker 65 establezimendu bisitatu dira banan bana eta horietako hamalauk jadanik euskaraz funtzionatzen zutela frogatu ondoren, beste 15 establezimenduk euskararen presentzia handitzeko konpromiso ezberdinak hartu dituzte, hala nola, ageriko elementuak euskaratzea. Gainera, aurrerantzean aholkularitza eta itzulpen zerbitzua ere izango dute eskura. Euskararekiko

nolabaiteko konpromisoa hartu duten establezimendu gehienak janari dendak, ostalaritza establezimenduak, ile apaindegiak eta estetika zentroak izan dira. Egitasmoarekin bat egin duten 29 establezimenduek oroigarri-pote

bat jaso dute Udalaren eskutik euren bezeroek ere konpromisoaren berri izan dezaten. Urte honetan zehar Astigarragako Udalak enpresa txikiei egitasmo bera eskaintzeko asmoa du.



Merkatariek Udalaren oroigarria jaso zuten unea

## Breves

### Herriko hondakin kudeaketaren berezitasunak aztertuko ditu ikerketa batek

Astigarragako Udaleko Ingurumen Sailaren ekimenez, herriko hirigunean nahiz landa eremuan edota industrialdeetan sortzen diren hondakinen ezaugarriak ezagutzeko ikerketa bat burutuko da eta beharrezko izatekotan, hondakin horiek kudeatzeko modu berriak planteatzeko dituzten herriko hondakin kudeaketa plan berri baten bidez. Era berean, ikerketak gaur egun aurrera eramaten den kudeaketa sistema hobetzeko neurriak ere jasoko ditu. Ikerketak ondoko gaiak landuko ditu: hondakinen kokalekua udalerrri barruan; jasotze, berrerabiltze edo tratamendua; euskarri eta baliabideak; udalerrri barruan nahiz kanpoan hondakinen ibilbidea zein den... Eta ikerketaren xedeen artean, berrerabiltzea, berreskuratzea eta birziklatzea sustatzea, hondakin gutxiago sortzea, kudeaketa gastuak gutxitzea eta konposta bezalako egitasmoak lantzeak duen garrantzia hedatzea daude.

### Txotx denboraldi berria martxan da



Andoni Luis Aduriz ohorezko txotxa egin ostean.

Aurtengoan Mugaritz jatetxeko Andoni Luis Aduriz sukaldari ezaguna izan da sagardo berriaren denboraldia irekitzeko arduraduna. Gonbidatuak Udalaren aldetik oroigarri bat jaso eta Sagardo Etxeko zelaietan zuhaitz bat landatu ostean, urtero legez Petritegi sagardotegian ospatu zen Txotx denboraldi berriaren irekiera ekitaldia. Aromatikoak eta gorputzarekin; horrelakoak dira, sagardogileen esanetan, denboraldi honetan gure sagardotegietan dastatu ditzakegun saldak. On egin!

### Etxebizitza hutsen errolda egingo da



Etxebizitza hutsak merkatura ateratzea da asmoa.

Etxebizitza berriak eraikitzeke proiektuak sustatzen jarraituko badu ere, Astigarragako Udalak beharrezko ikusi du etxebizitza hutsen arazoari aurre egitea ere eta horregatik uneotan, Eusko Jaurlaritzarekin elkarlanean, etxebizitza hutsak mobilizatzeko Bizigune programa herrian martxan jartzeko lanean ari da. Horretarako, lehendabizi, etxebizitza hutsen errolda bat egingo da epe laburrean herrian. Asmoa, Bizigune programa urte honetan bertan martxan jartzea da. Aipatutako programa Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Sailaren programa aitzindaria da eta bere xedea, etxebizitza hutsen jabeen eta alokairuko etxebizitza bat eskatzen dutenen artean bitartekari lanak egitea da. Bizigunek adostutako errenta garaiz jasotzea bermatzen dio jabeari eta baita etxebizitzaren mantenu ona, behin alokairu-epea amaituta baldintza onetan bueltatua izan dadin. Bestalde, maizterrari dagokionez, bere diru-sarreraren %30a gainditzeko ez duen errenta ipintzen zaio. Etxebizitzaren jabeak jasotzen duen kopurua eta maizterrak ordaintzen duen errentaren arteko aldea Eusko Jaurlaritzak hartzen du bere gain. Aipatzekoa da, bestalde, Bizigune programarekin bat egingo duten Astigarragako etxebizitzek OHZren %50eko hobaria jasoko dutela.



# Laburrak

## Abierta la variante que une Astigarraga y Martutene

Este nuevo tramo de la futura autovía del Urumea une desde el 20 de febrero Astigarraga con Martutene. Se trata de una variante de 1.400 metros que ya se deja notar ya que ha liberado de tráfico en viejo trayecto entre estos dos puntos en la carretera GI-131. Ya es posible circular entre Hernani y Martutene por las nuevas variantes que formarán la autovía del Urumea y otras se encuentran en estos momentos en ejecución para en un futuro poder ofrecer una alternativa a la N-1 al unir Andoain con San Sebastián.



Vista de la nueva infraestructura.

## Ayuntamiento, sidreros y hosteleros trabajarán juntos para impulsar el sector sidrero



Los firmantes están satisfechos con el acuerdo.

Han firmado un acuerdo de colaboración que servirá, entre otras cosas, para constituir una mesa de trabajo permanente en la que representantes de las tres partes debatirán, analizarán y acordarán nuevas medidas para garantizar la mejora tanto de la calidad del servicio como del propio negocio, sin olvidar el fomento de la cultura de la sidra durante todo el año, no sólo durante la temporada. El Ayuntamiento, los sidreros de Sagardun y los hosteleros del municipio opinan que la firma de este acuerdo supondrá “un gran avance”. Además, en lo que respecta al aspecto económico, se ha acordado que las aportaciones que realiza el Consistorio con motivo de la temporada vayan reduciéndose poco a poco hasta llegar a lo estrictamente necesario. Esta temporada se ha habilitado un punto de información, el servicio de postal free y los folletos informativos que animan a los visitantes a comportarse cívicamente y los sidreros y hosteleros se han comprometido a realizar la aportación económica pertinente.

## Okindegietan euskara erabiltzeko kanpaina

Buruntzaldeko udaletako Euskara Zerbitzuek okidengietan euskara erabiltzeko kanpaina ipini dute martxan. Lehenago arrandegi, harategi edo frutadendetan egin izan den bezala, bezeroek ogia erosterakoan euskara erabili dezaten lortu nahi da egitasmo honen bidez. Kanpainarekin bat egin duten okindegietan ogi ezberdinen izenak erakusten dituen kartela eta txartelak banatu dira.



Kanpainaren aurkezpeneko une bat.

## Herritarrak

### En marcha varias acciones de participación

La Comisión de Participación Ciudadana, Comercio y Cooperación al Desarrollo está llevando a cabo varias acciones para romper la barrera entre la ciudadanía y las instituciones. Una de las iniciativas más importantes es la aprobación, por parte del Pleno, del Reglamento del Consejo Asesor de Planeamiento Municipal que abre la puerta a la creación de este órgano en el que representantes vecinales y políticos podrán debatir sobre distintos temas recogidos en el Plan General que afecten al futuro urbanístico del municipio. Por otro lado, también se han llevado a cabo consultas a los vecinos de Errekatzko por el proyecto de urbanización, a los vecinos más afectados por el flujo de visitantes en temporada de Txotxo a los comerciantes del municipio ante la necesidad de determinar zonas de carga y descarga, con una respuesta muy positiva.

### Los astigartarras tendrán acceso a servicios municipales vía Internet con la tarjeta ONA

Dentro del Plan de Mejora de Servicios Municipales ON-LINE, la Comisión de Hacienda, que también es responsable del área de Innovación, ha tomado una decisión que será de gran importancia para las futuras relaciones entre el Consistorio y los contribuyentes. Durante este año, el Ayuntamiento de Astigarraga entregará de forma gratuita la tarjeta ONA a todas aquellas personas que lo soliciten, al igual que también se les hará entrega del lector de tarjeta para el PC necesario para operar desde casa. Gracias a esta tarjeta, los astigartarras podrán



Imagen de la campaña del Gobierno Vasco sobre ONA

llevar a cabo un amplio abanico de gestiones cómodamente a través del ordenador. En lo que se refiere a los servicios municipales, los astigartarras podrán iniciar y tramitar expedientes como por ejemplo, la solicitud de licencias urbanísticas, consultas urbanísticas, inscripción a cursillos, domiciliación de recibos, certificados de bienes, solicitud de subvenciones, alquiler del albergue municipal, reserva de salas, pago de tasas-impuestos, etc.

**Tarjeta ONA** Los servicios municipales son sólo una parte de los servicios a los que podrán acceder los astigartarras gracias a la tarjeta ONA, que se entregará de forma gratuita a todas aquellas personas que la soliciten durante este año. Gracias a ONA, que es una herramienta diseñada por el Gobierno Vasco, se podrá acceder también a servicios relacionados con Osakidetza, como reservar cita médica o el cambio de médico. Y también la tramitación del IRPF, las autoliquidaciones o consultas de datos fiscales. Además recoge la posibilidad de consultar otro tipo de datos como son la situación de los puntos del carné de conducir, la vida laboral o datos catastrales. El Ayuntamiento buzoneará en breve un folleto informativo en todos los hogares de Astigarraga donde se concretará cómo se tiene que gestionar la solicitud de ONA y su recogida.

### Ikerlan batek herriko bizilagunenarteko harremanak aztertuko ditu

Bakearen kulturaren sustapenean topa daitezken oztopo nagusiak identifikatzeko, eta oztopo horiei aurre egiteko lan-esparru nagusiak zeintzuk diren jakiteko ebaluaketa bat burutuko du GEUZek (Gatazka Eraldatzeko Unibertsitate-Zentroa) Astigarragan datozen hiru hilabeteetan. Ekintza honen bidez, maiz asko herriko elkarbizitza oztopatzen duten arazoak identifikatzea lortu nahi da, berauei aurre egin ahal izateko. 'Oztopo' horiek askotan indarkerian amaitzen duten gatazkak izaten dira eta besteak beste, dibertsitatea ez onartzea, amorru politikoa, emakumeen kontrako tratu txarrak... bezalako gertaerek eragiten dituzte. Bakearen kultura aldarrikatzen duen ekimen honek herrian bizi diren pertsona ezberdinen arteko

elkarbizitza positiboa bilatzen du eta horretarako herritarren parte-hartzea, aukera berdintasuna, elkarrizketa eta gatazken ebazpen baketsua bezalako kontzeptuetan oinarritzen da. Bide horretatik udalerriko agente ezberdinen, erakundeen eta herritarren arteko ulermena, eta errespetu handiagoko klima baten sorrera bilatzen da. 'Berriemaile' klabe bezala, euren eguneroko jardueragatik herrian gertatzen diren gatazken informazio gehien duten herritar-taldeak erabiliko ditu ikerlanak; hala nola, udaltzaingoa, gizarte zerbitzuak, herritarren arretarako beste udal zerbitzuak, elkarteak, Udaleko sail ezberdinetako teknikariak... Behin diagnosi hau amaituta, trebatze-tailerrak martxan jartzea aurreikusten da.

## Ricardo Arrizabalaga: «Mundarro osasuntsu dago baina aurrera egin behar dugu»

El presidente del Mundarro, Ricardo Arrizabalaga, realiza un repaso a la trayectoria del club cuando se cumplen 25 años desde su inicio y nos expone sus retos ante el futuro.

**-El Club Deportivo Mundarro ha cumplido ya 25 años. ¿Cómo ha sido el 'viaje' que ha convertido un equipo de fútbol en un club que agrupa 6 modalidades deportivas?**

-Efectivamente, los orígenes del club están en el fútbol. Fue la respuesta a la demanda que existía en el municipio. Con el tiempo comprobamos que existían nuevas necesidades deportivas y el club intentó darles respuesta, ese es nuestro planteamiento. Eso sí, tenemos claro que somos un municipio de 4.500 habitantes y que debemos garantizar las bases piramidales de las diferentes secciones y modalidades con el fin de dar continuidad a todos los jóvenes. Nuestro propósito es centrarnos en la actual oferta, consolidarla y poder seguir avanzando.

**-¿Cómo se presenta el futuro?**

En estos momentos, somos un club de referencia tanto a nivel organizativo como a nivel deportivo y creemos que con vistas al futuro hemos de tener una perspectiva más mancomunada que local; hay que plantearse cooperar con otros clubs.

**-¿Habéis dado ya algún paso hacia ese futuro de cooperación?**

En fútbol tenemos convenios con los equipos de Amara Berri y La Salle. Estamos satisfechos con la iniciativa y queremos profundizar en ella. En baloncesto tenemos acuerdos con La Salle y el Club Hernani de Baloncesto. La salud de nuestro club es buena, tanto económica como deportivamente. Pero somos incorformistas y queremos más. Una respuesta mancomunada nos ayudaría a ofrecer una mejor calidad y continuidad. Existe un planteamiento en torno al río Urumea. Se trataría de una iniciativa mancomunada que uniría diferentes agrupaciones en torno al Urumea.

**-Mundarro K. E. pasará a denominarse Astigarraga K. E. en el futuro. ¿Cuándo tendrá lugar ese cambio y qué va a significar?**

Estamos esperando la aprobación de una ley por parte del Parlamento Vasco para proceder al cambio de denominación. Además del nombre, también habrá cambios en la estructura del club. Además

de la directiva, habrá otra comisión operativa que trabajará día a día para responder a las necesidades del club. Actualmente también existe un contacto permanente con los responsables



**www.astigarragake.com web orriak gaztetxoan arreta lortu du eta parte-hartze zabala jasotzen ari da. Zein da zuen balorazioa?**

**Urte eta erdi daramagu web orriarekin. Tresna garrantzitsua da informazioa hedatzeko eta jokalarientzat baliagarria gerta liteke, esate baterako, babesleak bilatzerako orduan. Gainera, barne-dinamika bat sortzen da bazkide eta jokalarien artean eta euren fidelizazio maila handitzeko aukera ematen du. Foro eta txaten erabilerari dagokionez, parte-hartzaileena saskibaloikoa da, eta futbolari buruzko blog bat ere badago.**



de las secciones pero en el futuro, esa presencia será mayor.

**-Desde el Ayuntamiento está previsto realizar importantes cambios en instalaciones deportivas...**

Sí, la modernización es una de nuestras metas. Queremos tener unas instalaciones que estén a la cabeza de los clubs de la zona. Por parte del Ayuntamiento hay una identificación total con esta pretensión y, por ejemplo, se van a hacer mejoras en el campo de fútbol y una futura conexión por bidegorri entre el campo y el centro del municipio para desplazarse sin peligros.



# agenda

## II. gazte-olinpiadak - II OLIMPIADA JUVENIL. Martxoak 15 de marzo

GINKANA 11:30ean Pilotari plazan edo, euria eginez gero pilotalekuan. Antolatzailea: Gazte Asanblada  
GINKANA a las 11:30 en Pilotari plaza y en caso de lluvia en el frontón. Organiza: Gazte Asanblada

## zinea

Martxoak 29 Marzo



### GEORGE ETA HERENSUGEA

Zuzendaria / Director: Tom Reeve

Jatorria/País: Alemania/Estatu Batuak - Alemania/Estados Unidos

Iraupena/Duración: 93 minutu

Ikusleak / Público: guztientzat - todos

## HAURRENTZAKO TAILERRAK Martxoaren 25etik 28ra kultur etxean TALLERES INFANTILES 25 a 28 de marzo en la casa de cultura

### BIZIKLETA KONPONTZEKO TAILERRA

Orduetgia: 10:30etik 12:00etara

Adina: 7 eta 12 urte bitarte

Prezioa: 10 euro

### GOZOGINTZA TAILERRA

Orduetgia: 16:00-17:30

Adina: 6-12 urte bitarte

Prezioa: 10 euro

Izenematea martxoaren 14a arte kultur etxean. Informazio gehiagorako deitu 943 33 50 64 telefonora.

### TALLER DE REPARACIÓN DE BICICLETAS

Horario: 10:30-12:00

Edad: Entre 7 y 12 años

Precio: 10 euros

### TALLER DE REPOSTERÍA

Horario: 16:00etatik 17:30era

Edad: entre 6 y 12 años

Precio: 10 euros

Inscripción abierta hasta el 14 de marzo en la casa de cultura. Para más información llamar al teléfono 943 33 50 64.

## POXPOLO, MOKOLO ETA KONPAINIA: RUN-RUN

Martxoaren 30ean udal pilotalekuan 18:00etan / 30 de marzo en el frontón municipal a las 18:00 h.



Run-Run ikuskizun berrian, gure pailazoen eta gainerako pertsonaiekin, batetik abestu, jolastu eta magia egiten dute, bestetik, umorea, maitasuna, algarak eta une xamurrak sorrarazten dituzte eta haurrei gainera parte hartzeko aukera ere ematen diete. KUTXAK sustatu eta babestutako emanaldia  
*En esta nueva actuación Run-Run nuestros payasos y demás personajes por una parte cantan, juegan y hacen magia, por otra provocarán momentos llenos de*

*humor, risa y de ternura y además los niños tendrán la oportunidad de participar en el espectáculo.* Actividad promocionada y financiada por KUTXA

### MUSIKA ESKOLAKO 2. HIRUHILEKO ENTZUNALDIAK

Martxoak 10, 17:30, biolina, txistua eta zehar flauta.

Martxoak 11, 19:00, ganbera eta saxofoia.

Martxoak 12, 19:00, pianoa, esku soinua, trikitixa, panderoa eta koilarak.

Martxoak 13, 18:00, trikitixa, panderoa, esku soinua, koilarak, esku soinu orkestra eta trikitixa eta pandero taldeak.

Martxoak 14, 17:30, Iratzar abesbatza eta Martuteneko musika eskolako abesbatza eta 20:00etan gitarra eta Eira taldea.

### AUDICIONES DEL 2º TRIMESTRE DE LA MUSIKA ESKOLA

10 de marzo, 17:30, violín, txistu y flauta travesera.

11 de marzo, 19:00, cámara y saxofón.

12 de marzo, 19:00, piano, acordeón, trikitixa, pandero y cucharas.

13 de marzo, 18:00, trikitixa, pandero, acordeón, cucharas, orquesta de acordeones, y grupos de trikitixa y pandero.

14 de marzo, 17:30, coro Iratzar y coro de la musika eskola de Martutene y a las 20:00 guitarra y el grupo Eira.

**GAZTE TXOTX** Gazte Asanbladak antolatutako bazkaria martxoaren 15ean Petritegi sagardotegian. Txartelak salgai 25 eurotan martxoaren 13a arte Zipotza tabernan.

**GAZTE TXOTX** organizado por Gazte Asanblada. La comida será el 15 de marzo en la sidrería Petritegi. Las entradas estarán a la venta en el bar Zipotza hasta el 13 de marzo.